0. AURREKARIAK

BiscayTIK Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako proiektua da, izaera berritzaile eta aitzindari nabarmena du nazioartean eta helburu hauek ditu: komunikazio kanal berri baten bidez, Internet bidez, Administrazioa herritarrengana hurbilaraztea bien arteko elkarrekintza erraztuz; horrez gain, Bizkaiko Udaletako barne-kudeaketa eta herritarrekiko harremana hobetzeko tresna informatikoak homogeneizatzea; eta Bizkaia informazio teknologietan eta Udal Administrazioaren ezagupenean nazioarteko erreferentzia bilakatzea.

Helburu hauek betetzeko, hiru ardatz ditu proiektuak:

- Herritarrentzako posta elektroniko zerbitzua.
- Udalerrientzako programa informatikoak eta herritarren izapidetzeetarako web ataria.
- Nazioarteko erreferentziadun Teknologia Zentro bat sortzea.

1. XEDEA

Lehiaketa honen xedea da UdaTIK udaleku teknologikoak antolatzeko zerbitzua kontratatzea.

2. AURREKONTUA

Gehieneko aurrekontua: 44.000 € gehi 9.240 € BEZ gisa.

Kontratuaren zenbatetsitako balioa 66.000 euro da, BEZ gabe.

3. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Zerbitzuaren irismena

Zerbitzu honek haur eta gaztetxoentzat urtero antolatzen den UdaTIK udaleku informatikoa planifikatu eta antolatu behar du. Matrikulazioen eta azken ebaluazioen kudeaketa ere barne hartzen du horrek. Gutxienez ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Modu ludikoan eta taldean, potentzial informatikoa eta teknologikoa gerturatu Bizkaiko gazteei.
- Partaideen sortzeko trebeziak sustatu, batez ere taldeko dinamikak landuz.
- Partaideak prestatu web ingurunean aplikazio txikiak eta jolasak diseinatzeko, roboten eraikuntzan, eta abar gai izan daitezen,
- Partaideei erakutsi informatikako programazioaren oinarrian dagoen logika modu naturalean ulertzen.
- BiscayTIK Fundazioak eskatutako zerbitzuaren antolaketako zeregin guztiak.

UdaTIK udalekuen hartzaileak 9 eta 14 urte arteko gazteak izaten dira. Ez da beharrezkoa erabiliko dituzten tresnak aurrez ezagutzea.

Bi talde egingo dira adinaren arabera (9-11 urtekoa eta 12-14 urtekoa), ahal den neurrian talde orekatuak eta interes pedagogikoen araberakoak izango dira. Talde bakoitzean 16 lagun egongo dira.

Posta elektronikoz emango da izena, BiscayTIK Fundazioak antolakuntzari emango dion kontu baten bidez, eta izena emateari buruzko informazioa BiscayTIK Fundazioaren webgunean argitaratuko da. Taldean eman daiteke izena, beraz, adin-tarte bereko beste pertsona batekin batera apuntatu daiteke.

Metodologian sartuko da gelako lana; talde bakoitza bere gelan arituko da, baina dinamika batzuetarako elkartu daitezke, lan proposamenaren arabera. Talde bakoitzean arduradun bat egongo da beti; gelako prestakuntzaz arduratuko da. Halaber, hirugarren bat ere izango da, laguntzeko edo dinamizatzeko. Euskarazko saioak izango dira, baina ingelesa ere erabiliko da programazioan erabiltzen den ohiko hizkuntza delako.

Jarduerak aplikazio txikien, jokoen, robotikaren eta abarren programazio errazarekin lotuta egongo dira. BiscayTIK Fundazioak 16 ekipo informatiko eta Interneterako konexioa hornituko ditu, PC bakoitzeko 2 pertsonako ekipoak osatu ahal izateko.

Lizitatzaileak BiscayTIK Fundazioaren instalazioetatik kanpo garatu ahal izango diren aisialdiko beste jarduera batzuk ere proposatuko ditu.

Udalekuko ordutegia urtero zehaztuko da; bi aste iraungo du udalekuak, eta uztaileko lehenengo hamabostaldian egiteak lehentasuna du. Udalekuaren ordutegia 09:00etatik 14:00etara izango da, astelehenetik ostiralera, eta hasi baino ordu erdi lehenagotik egongo dira arduradunak bertan partaideei harrera egiteko.

Esparrua

Zerbitzuaren xede izango dira UdaTIKeko berezko jarduerak, baita udalekuaren ondorioz sor daitezkeen bestelako beharrak ere.

Jarduerak BiscayTIK Fundazioaren instalazioetan egingo dira nagusiki.

4. PROIEKTUAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA

Atal honetan lizitatzaileak proposatu behar dituen zereginen xedea da jarduera antolatzea eta jarraipena egitea, hasi planifikazio fasean eta udalekua amaitu ondoren urteko ebaluazioa egin arte.

BiscayTIK Fundazioak pertsona bat izendatuko du garapena gainbegiratzeko eta amaierako emaitza onartzeko, eta hori izango da enpresa esleipendunari beharrezko jarraibideak emango dizkiona ere.

Enpresa esleipendunak pertsona bakar bat izendatuko du BiscayTIK Fundazioarekin erantzule bakarra izateko; berak jasoko ditu BiscayTIK Fundazioaren jarraibide orokorrak, eta erantzukizun honen bitartekaria izango da. Ardura hauek izango ditu:

- Egin beharreko lanak planifikatu, jarraipena egin eta kontrolatzea eta horien kalitate maila egiaztatzea.
- BiscayTIK Fundazioaren eskariak jasotzea, eta eskari horiek baloratu eta planifikatzea BiscayTIK Fundazioarekin ados jarrita.
- BiscayTIK Fundazioarekin izandako bileren aktak egitea, eta lortutako akordioak jasotzea akta horietan. Hasieran, bilerak astero egingo dira, eta helburu nagusia izango da abian diren zereginen jarraipena egitea, desbideratzeak eta puntu kritikoak identifikatzea edo zeregin horiek gerarazi dituzten puntuak identifikatzea.

Lantaldearen koordinatzailea BiscayTIK Fundazioan gehienez ere 90 minutuan aurkeztu beharko da, BiscayTIK Fundazioak hala eskatuz gero. Zerbitzuaren kudeaketan baloratuko da parametro honen hobekuntza.

Lanak amaitzean hornitzaileak lanak fakturatuko ditu onartutako balorazioaren arabera. BiscayTIK Fundazioak aztertuko ditu entregatutako lanak, aurrez onartutakoarekin bat datozela egiaztatuko du eta oniritzia emango die.

BiscayTIK Fundazioak beretzat gordetzen du egindako lanen kontrola, eta gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak atzera bota ditzake bere irizpideen arabera; hori guztia BiscayTIK Fundazioak kontratatuko zerbitzuen atzerapenagatik edo kalitate baxuagatik jarri ditzakeen zehapenak gorabehera; hori bera nahikoa arrazoi izan daiteke kontratua baliogabetzeko.

5. BALDINTZA PARTIKULARRAK

5.1. Lantaldea eta baldintzak

Enpresa esleipendunak beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak jarri beharko ditu, egokitzen dizkioten zerbitzuak modu egokian emateko. Gutxienez 3 pertsonako taldea izan beharko da (dinamizazioaren arduradun bat eta ikasgelako prestakuntzaz arduratuko diren 2 pertsona).

Zerbitzua eskaintzeko ordutegia BiscayTIK Fundazioko arduradunaren eta urte bakoitzean kontratatutako enpresaren artean adostuko da. Zerbitzuaren ordutegia 08:30etik 14:00etara izango da, lanegunetan, eta adingabeei lagundu beharko die gurasoek jaso arte.

Salbuespenetan, BiscayTIK Fundazioak eska dezake aurreko paragrafoetan zehaztutako ordutegi edo egunetatik kanpo eskaintzeko zerbitzua.

Kontratuak irauten duen bitartean, lantaldearen osaketan egin daitezkeen aldaketek ezingo dituzte memoria deskribatzailean adierazitako ezaugarriak aldatu. Edonola ere, aldaketa horiek BiscayTIK Fundazioari jakinarazi beharko zaizkio aldez aurretik, eta BiscayTIK Fundazioaren berariazko baimena izan beharko du.

Enpresa esleipendunak lantaldea etengabe prestaturik mantentzeko ardura hartuko du, BiscayTIK Fundazioak eskaturiko teknologia/funtzionalitate horietan. Prestakuntza horren kostua eta enpresa esleipendunak prestakuntza hori jasotzeko jartzen dituen langileen dedikazioa enpresaren konturakoak izango dira.

Enpresa esleipenduneko langileen beharrezko ekipamendua, lizentziak, komunikazioak eta joan-etorriak enpresak berak ordaindu beharko ditu.

5.2. Aurkezteko itundutako denbora

Lantaldearen edozein partaide BiscayTIK Fundazioan aurkeztuko da 90 minutu baino lehenago, BiscayTIK Fundazioak horrela eskatzen badu.

5.3. Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen babeserako araudia

Esleipendunak, kontratatutako zerbitzua emateko, datu pertsonalak atzitu behar baditu, indarrean dauden legezko estipulazioak bete beharko ditu.

Atzipena ez bada zerbitzua egoki emateko beharrezkoa, ondorengo hitzarmenak aplikatu beharko dira:

- Zerbitzua emateko, erakunde zerbitzu-emaileko langileak lokaletara edota informaziodun fitxategien zerbitzarietara sartu behar dira fisikoki nahiz telematikoki. Bertan, datu pertsonalen fitxategien eta isilpeko beste agiri batzuen tratamendua egiten da. Edonola ere, espresuki debekatuta dago kontratatzailearen jabetzako datu pertsonalak atzitzea.

- Erakunde zerbitzu-emaileko langileek sekretu profesionala eta konfidentzialtasun-betebeharra gordeko dituzte beren esku utzi diren eginkizunak betetzean halabeharrez ikus ditzaketen datuen gainean. Erakunde zerbitzu-emaileko langileek debekatuta dute hirugarren pertsonei datuak ezagutaraztea, ematea, lagatzea edo edonola jakinaraztea, eta obligazio hori harremana bukatu ondoren ere mantenduko da. Erakunde zerbitzu-emaileak kontratu honetako obligazioak eta, batez ere, sekretuari buruzko obligazioak bere langileei jakinarazteko eta betearazteko konpromisoa hartzen du.

- Erakunde zerbitzu-emaileak datuen babeserako indarrean dagoen legedi aplikagarriak xedatzen duena betetzeko eta fitxategiaren arduradunaren arauak jarraitzeko konpromisoa hartzen du, zehatz-mehatz:

    - Erakunde zerbitzu-emaileko langileek sartzen diren lokaletako segurtasun-neurriak errespetatu beharko dituzte eta haien egonaldiak edo igarotzeak ezin izango ditu jatorrizko segurtasun-baldintzak murriztu (ate eta leihoak ixtea, alarmak konektatzea, etab.).
    - Erakunde zerbitzu-emailearen betekizuna izango da zerbitzua emateko jaso duen informazioa baimenik gabeko pertsonek ez dutela ikusiko bermatzea. Hori dela eta, informazioa biltzeko, gordetzeko edo kontserbatzeko lekuak konfidentzialtasuna bermatzeko egokiak izan beharko dira.
    - Erakunde zerbitzu-emaileak zerbitzua emateko jaso dituen datu guztiak suntsitzeko konpromisoa hartzen du. Obligazio honek edozein datu pertsonal duen euskarri edo agiri guztietan du eragina, eta datuak berreskuratzea ezinezkoa dela bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu erakundeak.
    - Fitxategiaren arduradunaren jabetzako datu pertsonalen segurtasunari eragin diezaiokeen edozein gorabehera (dela kontratuaren indarraldian dela ondoren), erakunde kontratatzaileari jakinaraziko zaio berehala.
- Erakunde zerbitzu-emaileak ziurtatu egiten du bere langileek konfidentzialtasun-klausula bat sinatu dutela eta horren bidez haien kargu edo eginkizunak burutzean ezagututako datuak zerbitzuak irauten duen bitartean edo ondoren ez jakinarazteko konpromisoa hartu dutela. Halaber, ziurtatzen du datu pertsonalak babesteko araudia beteko dela bermatzeko segurtasun-neurriak ezagutzen dituela.
- Aurreko ataletan ezarritakoa betetzen ez duen erakunde zerbitzu-emailea tratamenduaren arduraduntzat joko da. Beraz, egin dituen arau-hausteen eta interesdunek dagokion Datuak Babesteko Agentzian jartzen dituzten erreklamazioen erantzule izango da eta, hala badagokio, kaltetutako pertsonak bere ondasun edo eskubideetan jasan duen kalte edo lesioengatik erabil dezakeen erantzukizuneko ekintzaren ondoriozko kalte-ordainen erantzule ere izango da.

Kontratua bertan behera uzteko behar besteko arrazoi izango da erakunde zerbitzu-emaileak edo bere langileek sekretuaren betebeharra urratzea edo datu pertsonalen babesari buruzko araudia ez betetzea.

5.4. Jabetza intelektuala

Esleipendunak BiscayTIK Fundazioari lagako dizkio kontratu honen baitan eratutako lan, sorkuntza eta dokumentu guztien egile-eskubideak eta jabetza intelektualeko eskubideak. Jabetza intelektualari dagozkion eskubideen lagapenak ez du denbora-mugarik izango eta esleipendunak kobratuko duen ordainsariaren barne dagoela ulertuko da. Ondore horietarako, BiscayTIK Fundazioak esleipendunaren lana orokorki aldatzeko, eraldatzeko, erreproduzitzeko, banatzeko, argitaratzeko, erakusteko, erabiltzeko eta ustiatzeko eskubidea izango du.

Esleipendunak ezin izango du ikerketa osoa edo zati bat erabili, ez zuzenean ezta zeharka ere, munduko edozein lekutan egin lezakeen antzeko beste enkargu batean.

Lizitatzaileak BiscayTIK Fundazioari eman beharko dizkio fitxategi guztien iturriak, baita erabilitako baliabide teknologiko guztiak ere.

6. ARGIBIDEAK

Edozein kontsulta edo argibidetarako eta eskaintzak bidaltzeko, BiscayTIK Fundazioak ondorengo helbidea jartzen du enpresa eskaintzaileen eskura:

eskaintzak@biscaytik.eus

Kontratazio-organoak interesdun guztiei emango die lizitazioko pleguei eta gainerako agiri osagarriei buruz eskatutako informazioa, eskaintzak aurkezteko epea baino 8 egun natural lehenago egin bada eskaria.

Izenpetua: Alaitz Etxeandia

BiscayTIK Fundazioko zuzendari nagusia